

## Assumpta Baig pedagogoak ekintzailetasuna eta irakaskuntza izan zituen hizpide

2008/02/19

Joan den otsailaren 11n, **Ekiten** egitasmoak antolatuta, Assumpta Baig pedagogo katalana izan zen HUHEZIn, hitzaldia ematen **Psikopedagogiako ikasleei**. Assumpta Baig Rosa Sensat irakasleen elkarteko kidea da, eta bertako sortzailetariko bat. Hitzaldian azaldu zuen zelan sortu zuten Rosa Sensat elkarte **1965ean**, eta zer gorabehera izan zituzten bidean.

Rosa Sensat elkarteak sortu zuen eskola mugimendu bat, erabat kezkatuta garai hartako pedagogiaz. Elkartearen helburuetariko bat zen zabaltzea pedagogia eraginkorra. Hizlariak Rosa Sensat erabil izuen behin eta berriro ikusarazteko Psikopedagogiako ikasleei zer garrantzitsua den hobetzeko ahalegina eguneroko lanean. “Gizarteak behar ditu erakundeak, lan egingo dutenak irakaskuntza hobetzeko. Eta horretarako pertsona motibatuak behar dira, hobetzeko grina dutenak”.

### **Ekiten** egunak

Honako hau **bigarren Ekiten eguna** izan da HUHEZIn ikasturte honetan. Joan den azaroan, Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleek izan zuten horrelako beste egun bat, ekintzailetasuna sustatzeko. Orduan hiru hizlari izan ziren fakultatean, beste horrenbeste esperientzia azaltzen.

